

INSTITUTU ERLIJOSOAK

Euskal Herriko Institutu erlijiosoen historia orokorra idazteke dago oraindik, eta, gisa berean, berorien arteko harremanena ere bai. Hala ere, oro har, esan daiteke Elkarte hauen arteko harremanak ez direla sobera minak izan, eta lehiakide bezala sentitu dutela elkar, azken hamarkadetan premia amankomunek elkarrengana bultzatu dituzten arte.

Hurbiltasun berri horietan, Arantzazuko Santutegiak izan du bere lekutxo, bai Santutegian noizbehinka bildu izan diren erlijiosoen aldetik, eta baita hemendik kanpo arantzazuarrek unean uneko edo iraunkorki eskaini dituzten lankidetzak eta laguntzen aldetik.

Liburu honetako hurrengo orrialdeetan esango da zerbait, adibidez, josulagunek Arantzazurekin izan dituzten harremanei buruz, kasu hau berezia baita (ik. aurrerago, 365-369. or.); baina izan da bestelakorik ere.

Ondoko argazkian, e. b., Abade beneditarrek 1967an Santutegira egindako ikustaldia dakargu. Frantziskotarren eta beneditarren arteko hurbiltasuna, Fraide Txikien Ordenaren jaiotzteetan jarri behar da. Fraideak ugaritzen ari zirelarik eta eliza baten beharrez zebiltzela, Subasioko San Benito Monasterioko Abade beneditarrak eman zizkion San Frantziskori Santa Maria Aingeruenerako elizaxoa (*Porziuncola*) eta berorren ondoan aterpea egiteko aukera. Gerora, elizatxo hura bilakatu zen Senitartearen bihotz.

Aro Garaikidean eta Euskal Herrian, gure herriarekiko kidetasun berean ibiliak dira beneditarrak eta frantziskotarrak: gogora bitez, Belokeko Monasterioa eta handik Aita Lertxundi eta X. Diharce Iratzederrek egindako liturgiaren euskalduntzea, eta Arantzazutik Gandiaga-Zabala-Beristain hirukoteak egindakoa. Paretasun beretsuan, Lazkaon eta Arantzazun (bakoitzak bere erara) liburutegi-artxiboetan bildutako euskal altxorra aipatzekoa da. Eta hori dena borobilduz: Andre Mariaren Euskal Herriko bi Santutegitako lana dago, Estibalitzen eta Arantzazun. Alboko argazki hau eta, *Pasionea* zela eta, 143. orrialdean emango dena kidetasun horien adierazle ere badira.

Domingotarrak Santutegiko zaintzaileak izan ziren (1509-1514), eta beren lorratza utzi zuten; baina, frantziskotar eta domingotar, garai bateko lehia sozial eta pastoralean ez ziren beti oso adiskide ibili... , Sortzez Garbiaren sinesgaia tartean zelarik (bilbotarrek jakin zuten honetaz zerbait, XVII-XVIII. mendeetan). Arantzazun, ordea, eta XX. ean, domingotarrek frantziskotarrei laguntza emandako bi une gogoratu behar dira: Inprimategia abian jartzen lagundu zuten Bergaratik, eta Basilika Berriarena bide itsuan aurkitu zenean, Aita Jose Manuel Aguilar domingotarra izan zen azkenik irten-bidea samurtu zuena. Esan da honetaz behar zena aurreko orrialdeetan.

Bezeria bat bera irabazteko lehian zebiltzela, sarri gertatu ziren iraganean Erlijioso Institutuen arteko auziak, eta liskarrak ere, norberaren interesak ez baitira harremanetan beti aholku-emaile onak. Orain, Euskal Herria halako bihurtu erlijioso zailean dela, badirudi xede amankomunek hurbiltzea ekar dezaketela.

Gotzainek beren aldetik, hein batean Euskal Herria aintzakotzat hartu duten honetan, erlijiosoek ere nahi beretsua erakutsi dute: gure Herriaren zerbitzuan elkartzekoa. Hori nahi izan zuten garai batez Loiolan bildutako Ordena eta Kongregazio guztietako erlijioso euskaldunek (1973-1978); taldearen idazkaria Arantzazuko bat izan zen orduan (J. A. Elustondo). Geroago, Euskal Herriko (Hegoaldeko) Nagusi Erlijiosoak ere bildu izan dira, gizarte bat berari elkartuta erantzuteko asmoz, eta hauen Batzordeko Idazkaria, 1977tik hona, Elustondo bera izan da.

Kultur munduan, bestalde, gogoan hartzekoa da Jakin Taldea, eta aldizkaria, Erlijioso-Ikastetxeetako argitalpen amankomuna izateko jaio zena Arantzazun, hain zuzen Institutu erlijioso ezberdinetako kideak hain ugari igo ziren «Arantzazuko Urte» hartan (1956).

Ezpal txikiak dira hauek, baina Institutu Erlijiosoen enbor historikotik datozenak; gerora, izango al da modurik elkartasuna zur gozo eta onez trabatzeke, Euskal Herri osoaren mesedetan (J. I.).



ABADE BENEDITARRAK (1967)

1967 ko abuztuan, beste hainbat aldiz bezala, Abade beneditarrak Santutegira igo ziren:

Pedro C. Gusi (Abade Jenerala), Mauro Elizondo (Lazkao), Casià Just (Montserrat), eta Jean-Pierre Inda (Beloke).

ABADES BENEDICTINOS (1967)

Como en muchas otras ocasiones, con ocasión de sus reuniones en Euskal Herria, los Abades benedictinos subieron al Santuario.